



AGENDA 21 GOIERRI
GOIEKI
Mallutz 18. 20240 Ordizia
943 16 09 70/ 943 16 15 37
agenda21.goieki@goierri.org
www.goierri.org

BOLETIN ELEKTRONIKOA, ekonomia, 13. zenb., 2011ko apirila

> Lauhileko honetan, hainbat izan dira **Lankidetzta Sareko** ekimenaren baitan aurrera eramandako ekintzak. Hauen artean honakoak:

- ✓ **Enpresa Txikien** foroek datozen hilabeteetan garatzeko lan-ildoak definitu dituzte eta datozen asteetan hauen garapenari ekingo diogu. Taldeetako batean, parte-hartzaileak interesen arabera lantalde batean edo bestean banatuko dira ekintzak martxan jartzeko. Horien artean, urteko kudeaketa planak garatu edo produktu propioen garapenerako ideien identifikazioa lehenetsitako ekintzetako bi dira. Beste enpresa txikien lantaldean berriz, parte hartzen duten enpresen ekoizpen ahalmenak batu eta profesionalen laguntzaz merkatu eta sektore berrietan lanean hastea lehenetsi da.
- ✓ Datozen asteetan **enpresa traktoretako Giza Baliabide arduradunekin** lehen bilera ospatzea da asmoa, azken Enpresa Traktoreen foroan lehenetsi moduan. Horretan, lantalde hau batzen duen lehen gaia, eskualdeko heziketa eskari eta eskaintza lotzearen erronka dugu. Dena den, talde honetan parte hartuko duten enpresek definituko dute zein diren euren artean lantzeko interesgarri kontsideratzen dituzten gaiak. Bestetik, Ezagutza Gunea ekimenean Giza Baliabide arduradunen lantaldean parte hartzen duen enpresatako baten presentziak, euren ibilbidearen berri eman eta zein ekintza garatu dituzten zuzenean ezagutzeko aukera emango digu.

GET GUNE

- ✓ **GetSarea proiektuak** "Compite. Ayudas para la Mejora Competitiva de las Empresas" programan onartuak izan dira. Hori dela eta, proiektu hauetan parte hartuko duten 12 enprekin bildu gara bakoitza martxan jartzeko. GetAkt proiektuaren kasuan esaterako, Ampo Koop.E.ko arduradunekin ere bildu gara proiektuaren egoera ezagutarazi eta hurrengo pausoak adosteko asmoz.
- ✓ **GetMunduan (GetGoierri Basque Country)** ekimenaren barnean, Ursviken, Atlas Copco, ACV, Irati, Axletech eta Pinette enpresek otsailaren 22, 23 eta 24an gure eskualde bisitatu zuten. Goiekik, Gipuzkoako Merkatal Ganbareekin lankidetzan, enpresa hauen identifikazioari ekin ondoren, hilaren 23an Goierriko Berrikuntza Poloan ekimen hau aurkezteko jardunaldia antolatu zen. Bestetik, eskualdeko enpresak ezagutu eta bisitatzeko aukera ere izan zuten.

Enpresa horiek eta eskualdekoen arteko lehen kontaktuak hasi dira. Goiekitik, lan-ildo honetan are gehiago sakontzeko proiektu proposamen berri bati ekingo diogu, bertatik eratorriko diren ekintza berriak definitzeko asmoz.

INKUBATEGIA

> Enpresa Ekimen Berrien XIV. Sariketari dagokionez, diptikoak eta kartelak egin



dira, eta honekin batera komunikazio planari hasiera eman zaio. Egutegia finkatu da eta Enpresa Ekimen Berrien XIV. Sari banaketa Ekintzailearen egunean ospatuko da maiatzaren 31an.

- > Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eta Deustuko Unibertsitatearen lankidetzarekin "Emprendizaje Social" ikastaroa amaitu da. Bertan, beste erakunde batzuekin lankidetzan (Lantegi Batuak, Basauri-Etxebarriko Behargintza, Gizakia Fundazioa) proiektu bat landu da.
- > Inkubategiari dagokionez, negozio ideia batekin etorri diren pertsona guztiei informazioa eta aholkularitza eskaintzen jarraitu da. Lehenengo hiru hilabete hauetan ez da enpresa kudeaketa ikastarorik antolatu, maiatzean antolatuko da eta kooperatibetan zentratuko da.
- > Urtarrilaren 24 eta 25an Bartzelona Activa eta BioCat ezagutu genituen. BioCat bioteknologia koordinatu, sustatu eta bultzatzen duen erakundea da. Beraien eredia ezagutzea oso interesgarria izan zen, Goiekin esploratzen ari garen areatako bat bio zientziak direlako. Ondoren, Bartzelona Activa ezagutu genuen, bisita hau Garapeneko beste kide batzuekin egin genuen. Ekintzailetasunean aitzindariak dira, eta ondorioz @22 ezagutu genuen.
- > Martxoan, Urola Kostako Mankomunitateari esker, eta Leonardo Da Vinci programa Europearrari esker Italiako Emilia Romagna erregioa ezagutzeko aukera izan genuen. Bertan ERVET, ERMES, DEMOCENTER, CRIT erakundeak ezagutu genituen. Emilia Romagna Italiako 3. erregio aurreratua da, ondorioz beraien eredia ezagutzea oso interesgarria izan da. Bertako enpresek berrikuntza oso barneratuta dute beraien egunerokotasunean eta ikustea besterik ez dago krisi garai hauetan %6ko langabezi tasa dutela.
- > Berrikuntza Guneari dagokionez, etorkizuneko sektoreen azterketarekin jarraitzen dugu, esplorazio guneak energia, ingurugiroa, bio zientziak, eta instalazio zientifikoak izanik. Alde batetik, bilera orokorrak egiten jarraitu dira, hauek hilean behin egiten dira, eta bestalde, esploratzaileen bilera, hauek 2 astetik behin egiten dira esploratzaile guztien artean.


Zer gehiago?

- Orkestrarekin elkarlanean, Lankidetzaren Sarearen ibilbide eta etorkizunari buruzko hausnarketa lanarekin jarraitzen dugu. Hori dela eta, datorren asteetan lankidetzaren sareetan lanean diharduten gainerako garapen agentziekin, ikasketa prozesu bat abiatzea da asmoa, Orkestrarekin elkarlanean.
- Goiekiko webgune berria: www.goierri.org. Bertan, agentziaren eskutik martxan jarritako ekimen orori buruzko informazioaz gain, Zerbitzualdearen baitan lantzen ari garen ekimenen berri ematen dugu.
- Eskualdeko Enpresa Sarearen Mapa Birtuala eta enpresen gida industrialaren etengabeko eguneratzean lanean jarraitzen dugu. Gure webgunean bila daitezkeen tresna hauetan eskualdeko enpresa bakoitzaren informazioa dago eskuragai, mapa birtualaren kasuan, bakoitzaren kokapen geografikoari loturik agertzen dena. Bi tresnek enpresa ororen datu base eguneratu eta dinamikoa izateko helburua dute eta beraz, etengabeko eguneraketan ari gara kalitateko zerbitzu eskaintzeko asmoz.
- Hurrengo hilean, Enpresa Kudeaketa Ikastaro berri bat jarriko da martxan. Ikastaro hau, negozio ideia bat duten pertsona guztiei zuzendua egongo da.

Zertan ari gara?

1. Espezie inbaditzaileen erradikazioa eta ibai-ertzen errestaurazioa.

2010eko ekainaren 30ean, Natura 2000 sare barruan dagoen Oria Garaiko eremuaren baitan, partaidetza tailer bat antolatu genuen Goiekiko instalakuntzetan. Partaidetza tailer honen helburua, gune natural honen inguruko egoeraren berri ematea eta berreskuratze aldera gauzatu



beharko liratekeen ekintzen proposamenak jasotzea izan zen. Bertan Oria ibaia eta bere azpi arroetako balio naturalak berreskuratze aldera espezie inbaditzaileen erradikazioa eta ibai-ertzeetan errestaurazio lanak gauzatea beharrezkoa zela ondorioztatu zuten gerturatutakoek.

Helburua 18 udalerritan lan egitea bada ere, baliabide ekonomikoak mugatuak direnez, 2011 urtean Amundarain eta Agauntza azpi-arroetan eta bi azpi-arro hauek lotzen dituen Oria ibai tramuan (Beasain eta Ordizia zeharkatzen dituen ibai tramua) lanean hasi gara Aranzadi Zientzia Elkartearekin.

Bestalde, eskolako agenda 21aren baitan eskualdeko ikasleek biodibertsitatea lantzen hari direnez, *Ur inguruneek ekologiaren aldetik duten balioak zabalitze aldera eta espezie inbaditzaileek sortarazten dituzten arazoak ezagutzera emateko* helburuarekin, ikasleei zuzenduriko 4 irteera antolatu ditugu. Irteera hauek apirila eta maiatzean zehar egingo dira.

2. Goierriko enpresek eskura dituzten ingurumen zerbitzuak.

Beste urte batez, eskualdeko enpresek ingurumen arloan [doako informazio eta aholkularitza zerbitzu](#) bat eskuragarri daukate Goiekiko Zerbitzualdea departamenduaren bitartez. Zerbitzu honen helburu nagusia enpresetako beharrak ezagutu eta hauek gainditzeko laguntza bat eskaintzea da (Jarduera eta irekitze lizentziak, hondakinak, isuriak eta abar).

Bestalde, pasadan azaroan IHOBErekin [Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programa](#) Goierriin Goiekik aurrera eraman eta kudeatzeko hitzarmena sinatu zen.



Programaren helburu nagusiak Euskadiko enpresen ingurumen jarduerak areagotzea eta garatzen hari diren merkatuetan ingurumen balioak enpresen lehiakortasuna hobetzea bultzatzea dira.

2011. urtean zehar enpresetara IHOBE-k eskaintzen dituen zerbitzuak bideratzeaz gain, eskualdeko enpresei zuzenduriko formakuntza tailerrak eta arazo edo helburu berdina duten enpresekin lan taldeak osatuko dira. Lan taldeen kasuan, ekodiseinua landuko duten 3 talde martxan jartzear daude. Talde hauez gain legedira egokitu beharra daukaten enpresekin ere lantaldeak osatzea aurreikusten da.

Bestalde, IHOBE-k martxan jarri duen "ekintza eraginkorra" izena duen zerbitzua

enpresek ezarri dezaten lan egingo da. Zerbitzu honen helburua enpresei ingurumen arloan baliabideak aurrezteko aukerak ezagutzera ematea da. Horretarako enpresek aholkulari homologatu batzuen zerbitzuak edukiko dituzte. Zerbitzuaren kostuak %50-60 bitartean IHOBE eta Goiekik finantzatuak daude.

3. Ecoeuskadi 2020.

Pasadan apirilaren 13an, Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategia (ecoEuskadi 2020) osatzeko foro bat ospatu zen Goiekiko instalakuntzetan.



Ecoeuskadi 2020 deritzon estrategia honen helburua, garapen ekonomikoaren, zuzentasunaren eta kohesio sozialaren inguruan eta ingurumenaren zaintzaren inguruan gogoeta egitea eta 2020 urteari begira EAEko ekonomia, gizarte eta ingurumen jasangarritasunari buruzko politika publikoak zehaztea da. Honen harira, bilerara gerturatu zirenek, **Konpetenziaren globalizazio** arazoari aurre egiteko politika publikoek kontutan eduki beharreko jarduera-ildoak proposatu eta eztabaidatu zituzten.

Ekarpen guztiak 2011ko apirilaren 29a baino lehen jasoko dira, eta 2020 urteari begira Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategia, 2011ko ekainaren 6an aurkeztuko da euskal gizartearen aurrean.

Informazio gehiago: www.ecoeuskadi2020.net

Berri gehiago...

1. Autoan elkarrekin zerbitzuaren 2010 urteko datuak.

Autoan elkarrekin zerbitzua autoa partekatu nahi dituzten pertsonak ezagutzeko aukera ematen du. Era horretan, norberak egin nahi duen bidaia erregistratu edo bilatu dezake sisteman eta oso erraza da lanera, unibertsitatera edo beste nonbaitera joateko bidai berdina egiten dituzten pertsonak ezagutzea.

2010 urteko datuak aztertuz, erabiltzaile kopurua %12an igo dela adierazi daiteke, gaur egun 355 erabiltzaileek izena emana dutelarik sisteman. Bestalde, egunero 54 bidai partekatzen dira, bidai bakoitzeko bidaiari kopurua 2, 8 pertsonakoa delarik. Kopuru hau 2009-ko datuekin alderatuz egunero partekatu diren bidai kopurua %19ko beheraka izan dutela adierazi dezakegu. Hala ere, partekatu diren bidaiei esker 15 tona CO₂ isurtzea ekiditu da. [Autoan Elkarrekin zerbitzuan sartu.](#)

2. Garraio Publikoa.

Eskualdeko garraio publikoaren kontzesioa berritzeko prozesua aurrera doa. Apirilaren amaieran kontzesio berriaren aurreproiektua informazio publikora irekiko dela aurreikusten da.

3. Eskualdeko agenda 21aren ekintza planaren ebaluazio eta ezartze mailaren azterketa



Laugarren urtez jarraian, eskualdeko ekintza planaren ebaluazioa egin da. Foru Aldundiko Garapen Iraunkorraren Departamenduak martxan jarritako programa honen helburua agenda 21etako ekintza planen ezartze maila neurtzea da.

Prozesua amaitu ondoren eskualdeko ekintza plana bere 5. ezarpen urtearen ondoren, %52an ezarrita dagoela ondorioztatu da.



TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA

Gipuzkoako Planen batez besteko ezarpenaren bilakaera helburuarekiko



[Ekintza planaren ebaluaketaren emaitzak ondorengo txostenean jasotzen dira.](#)

4. Auto elektrikoak alokatzeko sistema Beasain, Lazkao eta Ordiziara zabalduko dute.

Pasadan martxoaren 28an, Ataunen martxan jarritako Sarecar zerbitzua Beasain, Lazkao eta Ordiziara zabaltzeko egitasmoa aurkeztu zen. Zerbitzua zabaltzeko prozesua bi faseetan egingo da. Lehenengo fasean udalerri bakoitzak bere ibilgailuak izango ditu eta modu independentean funtzionatuko dute. Bigarren fasean udalerri ezberdin horietako ibilgailuak partekatu ahal izateko sistema bat garatuko da eta udalerri batean ibilgailu bat hartu eta Sarecar zerbitzua duen beste batean uzteko aukera izango da.

Zerbitzua ahalik eta modu egokienean kudeatu ahal izateko Sarecar kudeatuko duen elkarte bat sortuko da. www.sarecar.net